

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera, Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile azpieskalari dagokion lanpostua estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dago.

Lanpostua betetzen ari den funtzionarioa ez da jardunean egongo 2025eko uztailaren 21etik irailaren 14ra bitartean, biak barne.

Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21-h) artikuluan eta 92 bis artikuluan eta udal hau arautzen duten estatutuetako 2.3 artikuluan xedatutakoa, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bost egun balioduneko epea ematea, Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetze aldera eskaerak aurkezteko. Lanpostu hori Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49. artikulutik 51. artikulura xedatutako legezko zernahi eratan bete ahal izango da.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek, eta hori behar bezala egiaztatu beharko da. Hautagai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean foru aldundiek onetsitako azken lehiaketa arruntean puntuazio handiena lortu duena proposatuko da aldi baterako izendatua izateko.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidali behar da: alaguardia.maria@ayto.araba.eus.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna duela esleitura eta derrigortasun data 2021eko urriaren 1a dela. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 53. artikulura xedatutako prozedurak.

Laugarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea.

Guardia, 2025eko maiatzaren 21a

Alkate-lehendakaria
RAÚL GARCÍA EZQUERRO

ERANSKINA

..... jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:, udalerrria:; telefonoa:), estatuturako gaikuntza duen funtzionarioak, azpieskalakoak, eta egun toki erakundean lanpostua betetzen duenak, hau

Adierazten du

Jakin duela Guardiako Udaleko idazkaritza-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela aldi baterako, eta behin-behineko izendapenez betetzeko aukera dagoela. Betetzen dituela lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen du

Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, honako agiri hauek aurkezten ditu:

NANaren fotokopia.

Estatuturako gaikuntza duen funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

Lanposturako derrigorrezkoa den hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria.

....., 2025ekoaren(a)

Sinadura